diak aztertu bear litukela, onesten diranak lenbailen iztegian ezaŕi ditezen. Onetsi du Euskaltzaindiak.

5. Ganera, Iruña'ko apaiz-gaien udara-lanetarako *fichero* bat gertu bear zaiela esan da, oŕela beren lana askoz eŕezago egin dezaten.

- Ta beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta amaitu da batzaŕaldi au.

---

**Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Oŕila'ren 28'an.**

Auŕeko batzaŕean aipatzen diran euskaltzain berak datoz, Azkue maipuru dala.

1. Odon Apraiz jaunaren idazki luze ta mamitsu bat irakuŕi da ta Euskaltzaindiak gogo aundiz entzun du.

Apraiz jaun beroni Bidaso-aruzko *Erizkizundi* lana emango zaio, baldin berak ontzat artuko baligu.

2. Erabaki da: Gure *Euskera*'ren *suplemento* edo oŕiordeko bat argitaratzea, gayak gañezka datozelako.

3. Iruña'ko Seminarioko Eŕetore jaunak idaki batez Euskaltzaindiari esaten dio: euskaltzain bat edo bi ara bialtzeko, bertan izango diran euskalazterketarako. Ordeko izendatu ditu Euskaltzaindiak: aita Intza euskaltzaiña ta Irigarai urgazlea.

Ta beste gairik izan ez-da otoitzez amaitu da batzaŕaldia.

---